

MEREZI OTE?

CHILL MAFIA

GONTZAL MENDIBIL



Etzetik ihes egiteko zeharkatzea
Mutiko batek bakarrik egin lezake
Baina kaleak egunero ibiltzen dituen
Gizon hori jadanik ez da bat
Eta ez doa etzetik ihes

Badira udan eguzkia sartzen ari diren
Hutsik geratzen direneko arratsalde batzuk
Eta alferrekoen etorbidetik
Heldu berri den gizon hori gelditu egin da

Merezi ote egotea?
Geroan ere, bakarrik egoteko
Merezi ote bakarrik egotea?
Geroan ere, bakarrik egoteko

Kalerik kale bakarrik, plazak eta hutsik
Gelditzeko esan behar zaio andereren bati
Eta norberarekin bizi dadila eskatu behar zaio

Zeure buruarekin bestela mintzatuko zara

Merezi ote bakarrik egotea?
...

Horregatik gaueko mozkortia
Berriketan hasi ohi da adierazten
Kalerik kale ibilkiaz ere etxea jadanik
Andere horrenean legoke, ta mereziko luke

Merezi ote bakarrik egotea?
....

Zu gabe, ez legoke
Zu gabe, ateak itxiko lirateke
Zu gabe, ilunetan nengoke
Zu gabe, ezin iraun daiteke
Zu gabe, ezin dut bete
Zu gabe, ezin bizi naite

landare	bakarrik	kalea
proiektuak	kaleak	mutiko
batzutan	esperantzarik	ametsik
	plazak	